



«Etorkizun bizigarriak irudikatzen» literatur eta itzulpen lehiaketa

Azkenaldian agertzen ari den ideia bat da: oso erraz irudikatzen dugu gaur egun distopia; utopia, aldiz, nekez. Lehortzak, uholdeak, tenperatura-igoera, gaixotasun berriak... bolo-bolo dabilta gure gogoan krisi ekologikoa aipatzean, inpultsiboki kontsumitzen ditugun telesail zein filmetan, eta zaila zaigu imajinatzea arrakala berri honek, krisi orok aurretik egin bezala, irekitzen dizkigun ateak: harremantzeko modu ekofeministak, baliabideen kolektibizazioa, trantsizio energetiko justua...

Imajinatzeraz ausartu nahi baduzu, lehiaketa honetan duzu txoko argitsu bat.

OINARRIAK

1.- Testuaren ezaugarri formalak. Testuak gehienez bost orrialdekoak izango dira, Times New Roman 12 letra eta 1,5 lerroartean. Modalitatea edozein dela ere, testua euskaraz aurkeztu beharko da. Era berean, nahi duenak herri hizkeretako lexikoa eta esamoldeak beldur barik erabili ditzala; ulermena zaildu dezakeela uste bada beharrezko bitartekoak jar daitezke, euskara batuan ohikoagoak diren baliokideak legenda batean jarritz, adibidez.

2. Gaia. Aurkezten diren lanek deskribatu egin beharko dituzte etorkizunean bizitza egun baino bizigarriago egiten duten egoerak, edozein dela ere bizitzaren arloa. Bilbo bezalako hiri baten funtzionamendua izan daiteke, udalerririk txiki batekoa, pertsonen arteko harreman berriak irudikatzen dituenak, gizaki eta animalia-landareen artekoak, baliabide materialak ustiatzeko modu berriak... egungo proiektu txiki bat gizarte osora nola zabaltzen den deskribatu daiteke, edo krisi egoera bat zirudiena nola irauli den, adibidez. Ezagutzen ditugun distopiak (zonbiak, kasu) nola eraiki diren pentsatzeak lagundu ahal digu, baina alderantziz. Ebaluazio-irizpide nagusia doinu utopikoa mantentzea izango da, hau da, tonu positiboa. Horretan datza ariketa honen erronkarik handiena: distopiaren kalezulotik ihes egitean utopiaren bidezidorretan murgiltzeko.

2.- Modalitateak. Lehiaketa honek hiru modalitate ditu: literatur sorkuntza lanak, gazteen lanak eta itzulpenak.

2.1. Literatur sorkuntza modalitatea. Testu originalak eta argitaragabeak izango dira, edozein motatakoak: narratiba, antzerkia, poesia, bertsoak.

2.2. Gazteen lanak modalitatea. Testu originalak eta argitaragabeak izango dira, edozein motatakoak: narratiba, antzerkia, poesia, bertsoak, eta 18 urtetik beherakoek aurkezturikoak.



2.3. Itzulpenak modalitatea. Norberak beste hizkuntza batetik euskarara ekarritako testuak aurkeztuko dira, euskaraz argitaragabeak. Jatorrizko testuaren erreferentzia osoa (egilea eta data, bereziki) eta jatorrizko testuaren kopia bidaliko dira, hartutako zatia zein izan den markatuta, hala dagokionean. Zubi-hizkuntzak erabil daitezke, alegia, jatorrizko testua errusieraz badago baina ingelesezko itzulpena badu, ingelesezko bertsioa har daiteke jatorrizko testutzat.

3.- Lanak aurkezteko modua eta epea. Lanak eposta honetara bidaliko dira PDF eta Word edo ODT formatuan, 2024ko irailaren 15a baino lehen: etorkizunbizigarriak@gmail.com. Honela bidaliko dira mezuak: gaien modalitatea idatziko da, hiru hitz hauetako BAT idatziz: gazteak / literatura / itzulpena, eta mezuan lanaren izenburua eta aurkezten den pertsonaren izen-abizenak jarriko dira, baita, gazteen modalitatearen kasuan, adina ere. Lehiaketa iragarri eta zabaldu egingo da, zure sare sozialak aipatzea nahi baduzu bidali mezuan Instagram edota Twitter kontuaren izena. Artxioboaren izenean lehiaketa hitza, azpiko marra, modalitatearen hitza, azpiko marra eta lanaren izenburuaren lehen hiru hitzak jarriko dira, honela: lehiaketa_gazteak_lehen hiru hitzak. Dokumentuak helaraziko zaizkie epaimahaikideei, eta, beraz, anonimoak izan behar dira, baina mezuan zure datuak behar ditugu.

3.- Epaimahaia. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Amaia Apalauza Olo. Itzultzaile eta zuzentzaile autonomoa, literatur itzultzailea. EIZIEko Zuzendaritza Taldekidea.

Aiora Jaka Irizar. Itzultzailea, literatur itzultzailea.

Danele Sarriugarte Mochales. Itzultzailea, idazlea eta prentsako kolaboratzailea.

Elena Olave Duñabeitia. Arte historialaria eta poeta.

Eli Pagola Apezetxea. Bertsolaria. Ekologismo dibulgatzailea.

Iñaki Barcena Hinojal. Ekologismoko ekintzailea. Zuzenbide eta Gizarte eta Politika Zientzietako unibertsitate irakasle-ikertzailea.

Iñaki Petxarroman Gutierrez. Kazetaria eta idazlea.

Jenofa Berhokoirigoin Hirigarai. Kazetaria. Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Ikasketa Feministak.

Lizar Begoña Madariaga. Poeta eta zutabegilea.



4.- Sariak eta sari-banaketa. Literatur sorkuntza eta itzulpen modalitateetako lanik onenei 300na euro emango zaizkie, gazteen modalitatekoari 150 euro, gazteek beste bi modalitateetara aurkezteko aukera dute eta.

Ezingo du modalitate batean baino gehiagotan pertsona berak irabazi. Sari-banaketa Bilbon egingo da urte amaiera aldera, eta irabazleak bertan egotera konprometitzen dira.

Lanik onenak Argia aldizkariak argitaratuko ditu. Itzulpen-modalitatearen argitalpena jatorrizkoaren egile eskubide motaren arabera argitaratu ahalko da ala ez.

5.- Egile eskubideak. Bidalitako lanen eskubideak Creative Commons Aitortu-Partekatutak Berdin (CC BY-SA) 4.0 lizentziaren arabera lagako dira. Horren arabera, Sukar Horia lanak partekatu eta moldatu egin ditzake, betiere egilea aitortuz eta lizentzia beraren pean partekatuz. Informazio gehiago:

<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/deed.eu>.

6.- Sukar Horia kolektiboaz. Sukar Horia klase ikuspegia duen talde ekologista bat da, 2020an sortua. Klima larrialdi egoeran trantsizio ekologiko justua ezinbestekoa dela aldarrikatzen dugu kanpaina eta dinamika ezberdinen bidez, hitzaldi eta formakuntzak eskainiz, eta, oro har, gizartean borroka ekologista eta ekofeministaren premiaz jabearaziz.

“Etorkizun bizigarriak irudikatzen” kanpaina 2024an zehar martxan izango dugu. Hainbat ekintza dugu aurreikusita, beraz, adi gure sare sozialetara @etorkizunbizigarriak (Instagram) @ebizigarriak (Twitter) eta @sukarhoria.

Etsipen gutxiago eta borroka gehiago!